

Matematika

Lehen Hezkuntzako 5. maila:

URAREN KONTSUMOA

2. ariketa: adierazi zatikien bidez

- Munduko uraren % 3 ur geza da →
 - Munduko uraren $\frac{3}{100}$ ur geza da.
- Munduko ur gezaren % 87 glaziarretan eta elur moduan dago →
 - Munduko ur gezaren $\frac{87}{100}$ glaziarretan eta elur moduan dago.
- Munduan kontsumitzen den uraren % 8 etxeko zereginetan erabiltzen da →
 - Munduan kontsumitzen den uraren $\frac{8}{100}$ etxeko zereginetan erabiltzen da.

3. ariketa: Zure ur kontsumoa

- Aukera dute munduan pertsona guztiek ur edangarria horren erraz eskuratzeko?

Ez, munduko 10 biztanletik 7k ez dute ur edangarririk eskura, eta ez dute saneamendu sistemarik etxean.

- Badakizu zenbatekoa izan den zure etxeko azken hilabeteko ur faktura?

Hiru hilabeteko faktura 50 €-koa izan ohi da, gutxi gorabehera. Metro kubikoaren prezioa 1,95 €-koa da; hots, batez besteko errenta duen familia baten hileko sarreren % 0,75.

- Zer neurri har ditzakezu zure ur kontsumoa txikitzeko?

- Txorrota ixtea, eskuak, hortz-haginak... garbitzean.
- Ur botilak sartzea komuneko tangan.
- Komuna zaborrontzi gisa ez erabiltzea.
- Dutxatzea, bainatu ordez.
- Garbigailua eta ontzi garbigailua ondo betetzea, eta aurrezteko programak erabiltzea.
- Igerilekuan, dutxatzean... ura neurrian erabiltzea.